

BIRIBILKO 2010-2011 IKASTAROEN EBALUAZIOA

Jarraian, Biribilko 2010-2011 ikastaroetan parte hartu duten merkatariak egindako balorazioaren ikuspegi sistematizatua eskaintzen dugu.

I.- Ikastaroen ezaugarriak eta matrikulazioari buruzko datu orokorrak

I.- EUSKARA KOMERTZIALEKO OINARRIZKO IKASTAROA

Hartzaileak	Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak.
Helburua	Ahozko oinarrizko komunikazioa lantzea, merkataritzako egoera arruntetarako hizkuntza-oinarriak ematea.
Iraupena	87 ordu.

DATAK	ASTEKO KLASE-EGUNAK Astean bi egun	KLASE-ORDUTEGIAK Aukeratzeko: goizez ala eguerdiz
1. Aukera: Hasiera: 2010-urriak-4 Amaiera: 2011-maiatza-25	Astelehen eta Asteazkenak	1. Ordutegia: Goizez: 8:15 -9:45 2. Ordutegia: Eguerdiz: 14:15 -15:45
2. Aukera: Hasiera: 2010-urria-5 Amaiera: 2011-maiatza-26	Astearte eta Ostegunak	1. Ordutegia: Goizez: 8:15 - 9:45 2. Ordutegia: Eguerdiz: 14:15 - 15:45

II.- EUSKARA KOMERTZIALA HOBETZEKO IKASTAROA

Hartzaileak	Euskara zerbait hitz egiten dakiten Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak.
Helburua	Merkataritza arloko ahozko eta idatzizko euskara maila hobetzea.
Iraupena	100 ordu.

DATAK	ASTEKO KLASE-EGUNAK Astean bi egun	KLASE-ORDUTEGIAK Aukeratzeko: goizez ala eguerdiz
1. Aukera: Hasiera: 2010-urria-4 Amaiera: 2011-ekaina-27	Astelehen eta Asteazkenak	1. Ordutegia: Goizez: 8:00-9:30 2. Ordutegia: Eguerdiz: 14:15- 15:45
2. Aukera: Hasiera: 2010-urria-5 Amaiera: 2011-ekaina-28	Astearte eta Ostegunak	1. Ordutegia: Goizez: 8:00-9:30 2. Ordutegia: Eguerdiz: 14:15-15:45

IKASTAROAK EMAN DITUZTEN EUSKALTEGIAK

Bilbo Zaharra, Posta Kalea, 8. (Tfona: 94 4158292)
 Indautxu AEK. Urkixo Zumarkalea, 88 (Tfona: 94 4413474)
 Juan Mateo Zabala, Gordoniz Kalea, 22 (Tfona: 94 4221388)
 Matxintxu AEK, Ramón y Cajal Etorbidea, 8 (Tfona: 94 4752233)
 Ulibarri, Cardenal Gardoki, 3 (Tfona: 944 162 472)
 Lizardi AEK, Txakur Kalea, 1 (Tfona: 94 4168200)

I. Taula: Biribilko 2010-2011 ikastaroen matrikulazioari buruzko datu nagusiak

		Kop.	%
Ikastaro mota	Euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroa (87 ordukoa) ...	173	90,1
	Euskara komertziala hobetzeko ikastaroa (100 ordukoa)	19	9,9
Klase egunak	Astelehen eta asteazkeneak	78	40,6
	Astearte eta ostegunak	114	59,4
Klaseen ordutegia	Goizez: 8:15-9:45	47	24,5
	Eguerdiz: 14:15-15:45	145	75,5
GUZTIRA		192	100,0

Iturria: Siadeco, 2011


2010-2011 ikasturtean, denetara 192 merkatari matrikulatu dira, gehienak euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroetan. Guztira, 18 ikasle talde osatu dira: 16 oinarrizko ikastaroan eta 2 hobetzekoan.

10 ikasletik 6k astearte eta ostegunetan aukeratu du klaseetara joatea eta 4k astelehen eta asteazkenetan.

Ikasleen $\frac{3}{4}$ eguerdiko ordutegian (14:15etatik 15:45etara) joan da klaseetara eta beste laurdena goizekoan (8:15etatik 9:45etara).

2.- Ikasleen ezaugarri soziodemografikoak

I. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak sexuaren arabera - bilakaera (%)




Iturria: Siadeco, 2011.

Euskara ikastaroetan parte hartu duten Bilboko merkatarien artean gehienak emakumezkoak izan dira, hamarretik ia zortzi (% 78,5) hain zuzen ere.

Datuok aurreko ikasturtekoekin alderatuz, aipatu sexuari dagokionez joera bera errepikatzen dela, aurten matrikulatutako gizonezkoen ehunekoak zertxobait gora egin badu ere.

2. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak adinaren arabera - bilakaera (%)



Adinari dagokionez, merkatar horien batez besteko adina 41 urtekoa izan da. Matrikulatutako hamar ikasletatik ia zazpik 31-50 urte bitartean dituzte. 51 urtez gorakoek %16,3 osatzen dute, eta 30 urtez beherakoek aldiz, %12,2. Beraz, adin tarte zabaleko euskara ikasleez osatutako taldeak izan arren, 31-50 urte artekoak nagusitzen dira.

Aurreko ikasturtean altuagoa izan zen 30 urtetik beherakoen eta 51 urtetik gorakoen pisua; oraingoan berriz, 10 puntuz egin du gora 31-40 urte bitarteko ikasleen portzentajeak.

3.- Ikasleek lan egiten duten merkataritza establezimenduaren jarduera-adarra eta kokatuta dagoen auzunea

2. Taula: Ikasleek lan egiten duten establezimendua, jarduera adarraren arabera


Jarduera adarra	Ikasleak	
	Kop.	%
Elikagai freskoak	12	7,0
Elikagai lehorrak	1	0,6
Autozerbitzua/supermerkatua	6	3,5
Drogeria, lurrin-denda eta farmazia produktuak	13	7,6
Jantziak eta oinetakoak	30	17,4
Informazio eta komunikazio teknologien ekipiak	10	5,8
Altzariak eta etxeko artikulak	14	8,1
Kultur eta aisialdirako artikulak	12	7,0
Bestelako produktuak (optikak, naturdendak, belardendak, estankoak, ...)	40	23,3
Zerbitzuak (ostalaritza zerbitzuak, enpresa zerbitzuak, bidai-agentziak...)	19	11,0
Erosetxe handia	15	8,7
GUZTIRA	172	100,0

Iturria: Stadeco, 2011.

Euskara ikasleen %23,3k "bestelako produktuak" eskaintzen dituen denda batean egiten dute lan (optika, loradenda, argazkigintzako denda, belardenda, bitxi-denda, gozoki-denda, e.a...); %17,4k jantzi eta oinetako denda batean, %11k bestelako zerbitzu-establezimendu batean (taberna/kafetegia, ileapaindegi/estetika zentroa, telefonia zerbitzua, bidai-agentzia, hortz-klinika, etab.) eta %11,1ek elikagai denda edo autozerbitzu/supermerkatu batean.

Gainerako jarduera adarren batean lan egiten dutenen ehunekoa %5,8 eta %8,7 artean kokatzen da.

3. Grafikoa: Ikasleek lan egiten duten establezimenduaren auzunea (rankinga)(%)




Iturria: Siadeco, 2011.

Ikasleen %24,4k Indautxun kokaturiko establezimendu batean egiten du lan, 42 pertsona guztira; Abandon kokaturiko batean %18,0k (31 pertsona) eta Zazpi kaleetako batean %17,4k (30 pertsona). Santutxuko batean %8,1k (14 pertsona), Deustun %5,2k (9 pertsona) eta gainerako auzoetan %5etik behera (9 lagunetik behera).

4.- Euskara ikastaroetan matrikulatzeko motibazioa

4. Grafikoa: Biribilko euskara ikastaroan matrikulatzeko arrazoi nagusiak (2010-2011) (%)



Iturria: Siadeco, 2011.


Euskara ikastaro hauetan matrikulatzeko arrazoi nagusiaz galdetuta, multzorik handienak (%27,9k,) euskara ikasteko gogoak eta ilusioak bultzatuta eman zuela izena erantzun du. Horien artean daude ere, lehendik zer edo zer jakin, eta euskara gogoratzeko ilusioz ekin diotenak. Jarraian honakoak datoz: nagusiki interes pertsonalak (etxekekin hitz egin, seme-alabei lagundu...), interes profesionalak (bezeroekin hitz egin, ...) edo biak eraginda matrikulatu zirela adierazten dutenak (%20,9 eta %18,0 artean).

Gutxiago badira ere, aipatzekoa da %9,3k ikastaroaren ezaugarriak animatuta matrikulatu zirela, batik bat, ordutegiari eta erritmoari erreparatuta.

Aurreko datuok erakusten dute beraz, esplizituki, euskara ikasteko arrazoi nagusi gisa interes profesionala (soilik edo pertsonalekin batera) aipatu dutenak %38aren inguruan kokatzen direla.

5.- Euskara ikastaro ez egindako balorazioa

5. Grafikoa: Ikastaroaren alderdi desberdinen inguruan ikasleek egindako batez besteko balorazioa, ikastaro motaren arabera (Otik 10erako eskalan)



Iturria: Siadeco, 2011.


Euskara ikasleek ikastaroaren alderdi desberdinei emandako batez besteko puntuaketa oso ona dela esan daiteke. Batez besteko orokorra, 8,1koa da, eta alderdi guztiak 7,2 eta 8,7 artean kokatzen dira. Oinarrizko ikastaroetako ikasleen batez besteko puntuaketa orokorra bat dator datu orokorrarekin, eta hobekuntza ikastaroetakoan aldiz, zertxobait baxuagoa da (7,7).

Ikasleen artean puntuaketa rik altuena irakasleek lortzen dute, 8,7 puntuz. Ondoren, ikasle taldeaz eta euskaltegiaren kokapenez, ikasleek egindako balorazioa aipatu behar da: 8,6 puntu. Irakaskuntza sistema eta ordutegia, 8,2 puntuz baloratu dituzte batez beste. Gero, prezioa eta irakatsitako edukiak datoz: 8,1 eta 7,9 punturekin hurrenez hurren.

Baloraziorik baxuena jasotzen duen alderdia honakoa da: talde bakoitzaren barruan dauden ikasleen euskara mailaren homogeneotasuna da: 7,2 puntu.


Aipatzekoa da parte hartu duten euskaltegi-tako irakasleek gehien baloratzen dutena ikasleen interesa eta klaseko parte hartzea dela.

6.- Ezagutzan pertzibitutako aurrerapenak, ahoz eta idatziz



Bi ikastaro motetan parte hartu duten ikasleek aurrerapen adierazgarria igarri dute euren ahozko nahiz idatzizko euskararen ezagupen mailan ikastaroak amaitu ostean, batez ere, ezagupen baxuena zutenak eta oinarrizko ikastarora joan direnak

7.- Euskara ikasten jarraitzeko interesa eta aholkatze-maila beste merkatariek ikastaroetan parte har dezaten



Biribilkoren barruan antolatutako beste euskara ikastaro batean parte hartzeko ikasleek adierazitako batez besteko interes maila altua da: Otik 10erako eskala baten 7,9koa oro har; 8koa oinarrizko ikastaroa egin dutenen artean eta 7,5koa hobekuntza ikastaroa egin dutenen artean.

Parte hartu duten merkatariek, euskara ikastaro horietara joan daitezten beste merkatariek aholkatuko lituzketela garbi erakusten dute datuek; izan ere Otik 10era doan eskalan, 8,4 puntukoa da aholkatze-maila.

Irakasleek ere, interes handia erakusten dute ikastaro hauek ematen jarraitzeko (8,9 puntu).